



IGOR LETURIA AZKARATE
Informatikaria eta ikertzailea

Googlek, enpresa erraldoi bat izan arren, jator-fama izan du hasieratik: garaje batean bi lagun artean sortutako enpresa, software librearen erabiltzaile eta laguntzailea, protokolo irekien bultzatzailea... Hala ere, azkenaldian hartutako neurri batzuekin, edozein multinazionalen diruzalekeriaz betetako jokaera erakutsi du, bere jatorrizko printzipioen aurkakoa, eta, poliki-poliki, irudi on hori galtzen ari da.

GOOGLE

lagun zintzoa, gaiztotzen

Googlek oso produktu onak egin izan ditu beti. Haren lehen produktua (eta oraindik ere haren aktibo nagusia dena), bilatzailea, iraultzailea izan zen bere garaian; ordura arte zeudenen aldean, webaren zati askoz handiago bat indexatzen zuten, askoz azkarragoa zen eta, Page Rank algoritmoaren bidez, emaitza askoz hobekak itzultzen zituen. Gmail posta elektronikoa ere erraz gainditu zituen antzeko beste zerbitzuak, bai ezaugarritan, bai edukieran. Eta ateratzen joan den beste zerbitzu ugariarekin ere, antzera: Maps, Translate, Docs, Reader, Analytics... Horregatik guztiagatik, enpresa mirestua izan da teknozaleen artean; baina ez da hori izan arrazoi bakarra.

Ezaguna da Googleren "don't be evil" eslogan informala, "ez gaiztoa izan" esan nahi duena. Esaldi horren bidez adierazten zuten bere intentzioa gutxienezko printzipio etiko batzuk bete zeko eta erabiltzailea edozeren aurretik jartzeko. Jakina, Google enpresa bat da, eta dirua irabazteko asmoa ere badu, baina filosofia baten barruan. Eta filosofia horrek eragin handia izan du jende baten artean erdietsi duen miresmena eta fideltasuna lortzeko orduan.

ENPRESA EZBERDIN ETA JATORRA...

Software librearen aldeko jende asko oso Googlezalea izan da beti, Google bera software librearen erabiltzaile handia izan delako. Google barruan asko erabiltzen dituzte, esaterako, Linux sistema eragilea eta Python programaziorako Android sistema eragilea ere Linuxen oinarrituta dago. Eta software librearen garapenean asko lagundu izan du: haren plantillako jendeak software libreaki ekarpenak egin izan dizkio, eta Summer of Code bekak ematen ditu software librea garatzeko.

Halaber, protokolo eta estandar irekiak erabili eta bultzatu izan ditu betidanik. Adibidez, Google Talk txateko bere zerbitzuan ez du erabil-

tzen bere protokolo propietario bat, lehiakideek bezala (Facebook, Messenger, Skype...); XMPP estandar irekia erabiltzen du, eta, hala, protokolo hori erabiltzen duten programa, zerbitzu eta erabiltzaileekin komunika daiteke, ez soilik Google Talk erabiltzaileekin. Eta Google Wave ere sortu zuen, posta elektronikoen eboluzioa izango zena, posta elektronikoa, wikiak eta mezularitza konbinatuz; protokolo ireki gisa argitaratu zuen, eta hura erabiltzeko softwarea libre egin.

Tradizionalki, erabiltzaileen pribatasunaren babeslea ere izan da. Gutaz dakien guztia dela eta jende askok errezeloz begiratzen badu ere, orain artean ez du kezkatzeko arrazoirik eman: poliziak, federalek edo gobernuek erabiltzaileen datuak eskatzen dizkietenean ukatu egiten dizkie, beste batzuek ez bezala; soilik epaileek eskatuta ematen dituzte, halaberharrez.

Eta antzeko gauzak egiten dituzten enpresen aurrean, askatasunen defendatzaile gisa ere agertzen da. Apple-k, adibidez, erabat kontrolatu eta mugatzen du iPhone eta iPad-etan instalatutako softwarea; Android sistema eragilea duten telefonoetan, aldiz, edozein aplikazio legezko onartzen dute.

Azkenik, Googleren lan-baldintzek ere enpresa cool-aren irudia ematen diote. Bertako langileek ostiraletan beren ekimeneko proiektuetan lan egiten dute, hango jantokietan doan jaten da, zerbitzu- eta aisia-aukera asko daude langileen-tzat egoitzan bertan... Informatikari askoren ametsa da bertan lan egitea!

... ORAINDIK ERE BAI?

Azkenaldian, baina, Googleren irudi hori aldatzen ari da jende askoren begietan. Izan ere, jarraian aldaketa nabaria izan duela uste du jende anitzek, eta, edozein enpresak bezala, dirua irabazten eta bere burua edozeren aurretik jartzen hasi dela, printzipioak ahaztuta.

Kexa ugari jaso ditu Googlek lehen doan eskaintzen zituen hainbat zerbitzu kobratzen hasi delako: Google Maps eta Google Translate zerbitzuen APIak, enpresentzako Google Apps suite-a... Hala ere, hori zilegi da; azken finean, Google enpresa bat da, eta dirua irabazi beharra du. Ulergarria ez dena zerbitzuak besterik gabe ixtea da, errentagarritasun edo erabilera falta argudiatuz, ordainpeko zerbitzuak izatera pasatuta jarraitzeko aukerarik eman gabe. Eta, neurri batean, aldarrikatzen duen filosofiagatik, errentagarriak ez diren zerbitzu batzuk mantendu beharko lituzke.

Itxitako zerbitzu horietako bat Google Wave izan zen. Hain iraultzailatzat aurkeztu zuten teknologia bat-batean itxi zuten urtebete eskasera, adopzio urriaren aitzakian. Egia da ez zuela espero zen adinako zabalkunderik izan, baina zergatik gertatu zen hori, hain potentzial handiko tresna izanik? Googlek berak utzi zuen Wave poliki-poliki hiltzen. Protokolo irekiekiko jarrera-aldaketaren lehen zantzua izan zen. Google Buzz eta Google+ bere produktu sozial itxiak, aldiz, integratu zituen Gmail-ekin.

Google Reader ere itxiko dutela iragarri dute. Inoiz ez da izan publiko zabalarentzako produktu bat, eta ziurrenik ez zion dirurik ematen, baina erabiltzaile sorta ez baztergarria eta fidela du, eta zerbitzu mota hori beharrezkoa da gutako askorentzat. Zorionez, badira alternatibak, baina albisteak haserrea piztu zuen.

Protokolo irekien eta sistema ezberdinen interkonexioaren arloan ere atzera egin du. Google Talk-en, adibidez, kanpoko beste XMPP erabiltzaileen konexio-eskaerak onartzea galarazi zuen, nahiz eta jasotako kexengatik gero atzera egin zuen. Software libreari dagokionez, Google-k ez du Android-en azken bertsioren kodea libre egin.

Pribatutasunean ere atzerapausoa eman zuen Googlek bere zerbitzu guztietako erabiltzaileen informazioa bateratzean: orain, adibidez, YouTube anuntzioak erakuts ditzake zure Gmail-eko informazioa baliatuz. Ez da gure datuak beste bati ematea bezain larria, baina pribatutasunaren nolabaiteko haustea badago. Eta diru-irabaziak ere askatasunaren aurretik jarri ditu: mugikor eta tabletetarako aplikazioen Google Play bere dendatik ezabatu ditu nabigatzailean iragarkiak blokeatzen dituzten Adblock moduko programak.

Aipatutako xehetasun horietako bakoitza anekdotikoa izan liteke Googleren ibilbide osoarekin konparatzen bada, baina guztiak batera hain denbora gutxian gertatzea joera baten adierazle dira. Agian ez da oraingoz deabruzat hartzeko adinakoa, akaso oraindik ere jokabide askoz hobe izango du Interneteko beste enpresa handiek baino. Baina Google jada ez da aingerutxo bat, eta bere betiko jarraitzaile tradizionalen zati handi baten baldintzarik gabeko sostengua galdu du. ●

“Googlek, aldarrikatzen duen filosofiagatik, errentagarriak ez diren zerbitzu batzuk mantendu beharko lituzke”

